

Buhameen argiak, kaskaroten ilunak

Karlos del Olmo

Buhame-argiak

Egile: Ramón María del Valle-Inclán

Itzultzaile: Anastasio Esnaola

Literatura Unibertsala

Ibaizabal

“Ni herri sentitzen naiz. Herri xehearen tribuno izateko jaio nintzen, baina gero bilau bilakatu nintzen itzulpenak eginez eta bertsoak osatuz”. Horra hor antzezlan honetako protagonista den Max Izarra itsuaren tragedia eta miseria laburbiltzen dituen aldarri mindua. Hainbat luma jenderen tragedia berbera.

Jokalekua Madril absurdu, dirdiratsu eta gosekil batean kokatu zuen idazleak. Urrun samar Euskal Herritik, baina hegotarrek gertu-gertutik bizi izan zituzten Gorteko egoeraren ondorio mingarriak. Ezagunak dira bertsolariak mende honetako lehenengo hamarkaden gainean botatuko bertso samin eta gordinak: gosea, pobrezia, politikarien ustelkeria, langile borroka...

Bohemiako argiak dakarzkigun lan honi esperpento jarri zion deitura idazleak, eta ez alferrik. Esperpentoak zen garaia, esperpentoak egoera, esperpento huts pertsonaiak. Gai horiek hartuta, Valle-Inclánek garai hartako antzezlanik bikainena ondu zuen, nahiz eta gaur ezin ondo uler daitezkeen zioak direla bitarte, eszenategietara heldu ez denbora hartan. Egoera ez da asko aldatu, ezta hurrik eman ere. Egun, Euskal Herrian ere ia ez da antzeztan euskal idazleok erdituriko antzezlanik. Argitaletxeek ez dute antzezlanik argitaratzen, salbuespen ia testimoniozko batzuk salbu. Urtean, liburu gisara, pare bat antzezlan baino ez da argitaratzen, bi sariren ondorio dira eta. Antzezlanei ez zaie Euskadi Saririk ematen. Antzerkia literaturatik desagertzekotan dago. Literatur kritikariak ez dute generoa aintzat hartzen. Esperpentoa, bai.

Egilearen hitzetan, “Herri klasikoek Esperpentoa sortzen dute ispilu konkaboetan islatuta”. Patetiko gertatzen da egiaztatzea egia itsu batek baino ez duela ikusten lan honetan. Errealitatea endekatzen denean, fartsa sortzen da. Esperpentoak fartsaren beraren endekatzea du iturburu.

Pertsonaia esperpentoak horiek asmakari huts dira ala Vallek inguruan zituenean itzalak? Adituak ezin ados jarri horretan. Max “Izarra” poeta Ramon bera izan daiteke. Edo garai hartan oso amaiera lazarria izan zuen Alejandro Sawa idazlea. Horrek ez dio, baina, tragediari ezer kentzen, halere.

Buhame-argiak idatzi eta ia hurrengo hamarkadan jaio zen Anastasio Esnaola itzultzailea. Lan eskarmentu luzea izan du. Irakaskuntza, kazetaritza eta itzulpengintza maiztu ditu. Baina, erretiratu beharrean, Zarauzko komentu batean bizi da-eta gaur, letretan sarri bai sarri jazotzen denez, ez dio lan egiteari utzi. Eta zelako lana! Ez du behar makalik hartu apaiz frantziskotarrak, ez. Nahiz eta testuak Elizaren gainean senperrenak eta bi esan. Jatorrizkoaren hizkerak osagaitzat dauzka usaina, kolorea, zaporea, zartakoak, laztanak... Hizkera pertsonala, askea, herritarra, arrunta bezain goitiarra. Ameriketako, Madrilgo,

Galiziako hitzak eta joskerak darabiltza, potoloak eta dialektalak, Unamunok zioenez. Ezin erraza izan, beraz, euskaratze lana, egileak berbak aukeratzen ei zituelako horien iradokimena eta sonoritatea oinarri. Zaitiren bat do beste ederto emanda dago bertso moduan jatorrizko poemak ordaintzeko.

Teorilari eta adituek diotenez, itzultzerakoan galeraren bat edo beste izaten da. Baliokidetasuna lortu behar du itzultzaileak. Erraza esaten, gaitza egiten, baina. Areago antzerkia denean. Antzerkian ezin egin daiteke itzulpen hutsa. Testua taula gainera eroateko bada, egokitu beharko da, herri hartzailearen kulturara eta garaira ekarri. Esku artean dugun itzulpen honek bietatik edan du: itzulpena da, bai, baina areago joaten da, egokitu beharra ere izan duelako, espainiar buhame euskaldundu horiek, apika, inoiz ere euskal eszenategirik ikusiko ez duten arren.

Anastasiok berak hitzaurrean dioskunez, hitz batzuen adierazpena euskarara itzultzean galdu egin da. Dioenez, hor ikusten da argi eta garbi hizkuntza bat zer den. Hizkuntza guztiek beren historia luzea eta kontzientzia gordetzen dituzte hizkuntza adierazpenetan, baina adierazi horietako batzuk itzulezin bihurtzen dira beste lengoaia batera aldatzean. Langintza horretan eman behar du itzultzaileak, baina, neurria.

Borroka latza izan du aurrean itzultzaileak. Izenburutik beretik hasita. Eta, irakurle guztion pozgarri, gehienetan garaile irten du, duin, larrua galdu gabe. Zoriontzekoa da, ezbairik gabe!

Bitxi gertatzen da, bestalde, *Dramatis Personae* delakorik ez eskaintzea, eta horren oinean egileak berak jarritako oharra ez ematea, antzezlanak hobeto kokatzen lagungarri baitira. Lantzean behin, euskaratzaileak aukeraturiko puntuazio sistema bitxi gertatzen da, oso bat ez dator-eta ohiko moldeekin. Noiz edo noiz akats mekanografiko edo tipografikoren bat edo isuri da. Eguneroko, ogia, bai. Baina segur aski Eusko Jaurlaritzak, EIZIEk eta Ibaizabal argitaletxeak (orain arte, laster beste etxe batek hartuko dituelako inprimatze lanak) sustatu eta gobernaturiko Literatura Unibertsala bildumari erabateko bikaintasuna eta kalitatea eskatu behar zaizkio. Erabatekotasuna, segur aski, ezinezkoa den arren. Bildua literatur itzulpenaren ikur delako. Diren bide eta baliabide guztiak dituelako.

Irakurle arruntak —horiexek izaten dira eta muntadunak—, halere, txikikeria tekniko horiek alde batera utzita, gustura asko murgilduko dira gozamen hutsa den itzulpen honetan. Oso testu arina da, nahiz eta batzuetan oso esakune potoloak plazaratzen dituen. Egun ere irakurleak argiren bat edo beste topatuko du buhame marjinal horiengan. Hain du-eta egungo egoeraren antz handia! Han honela dio: “Herri errukarri honek jainkojale mutxurdinen ipuin bihurtzen ditu kontzeptu handi guztiak”. Hemen: “Merezimendua ez da saritzen Espainian. Lapurreta egitea eta lotsagabe izatea saritzen da. Makurkeria guztia saritzen da Espainian”.

Amaitzeko, egun literaturan gertatzen den beste jazoera bat harira ekarri gabe ezin gelditu. Irakurleok ez dute antzezlanik irakurri ohi. Beude! Nobelara jotzen dute. Beto! Baina zer bilatzen du harako irakurle hark eleberrian? Dendarien eta irakurle zenbaiten esanen arabera, elkarrizketa, zenbat eta elkarrizketa gehiago, hobe, bihoaz pikotara deskripzioetako lasto eta ziriak! Baina, hona hemen kontraesana, antzerkia horixe baino ez da, elkarrizketa hutsa! Zergatik ez jo sarriago antzez irakurgaietara? Hermann *Alemaniarra* XII. mendean esan zuena apur bat moldatuta, hobe da antzerki itzulua irakurtzea, irakurtzeko antzezlan bat ere ez izatea baino!